



EGK-ko FORMAKUNTZA PLANA 2026

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten **60 bat elkarteren** topagunea da. EGKren helburuak dira, besteak beste, gazteen eta gazte elkarten parte-hartzea sustatzea, gazteria politiken garrantzia aldarrikatzea, erakundeek gure ikuspuntuak kontuan izatea eta administrazioen eta gazte elkarten arteko zubi-lana egitea.

2026ko Formakuntza Plana EGK-k gazte-elkarteei laguntzeko duen baliabideetako bat da. EGK-k elkarteak indartzeko bideetako bat formakuntza dela uste du; izan ere, erakundeetan parte hartzen duten gazteek zeregin eta erronka berriei aurre egin behar diete, eta formakuntza laguntza-tresna erabilgarria izan daiteke horretarako.

2026. urtea Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Formakuntza Plana gauzatzen duen **hirugarren urtea** da. Jomuga hau egokia da formatu, iraupen, jarraitutasun eta inpaktu handiagoko bi programa berri sartzeko, elkarten beharrei formakuntza pilulen bidez erantzuteko gaitasuna galdu gabe.

2026ko Formakuntza Planak hurrengoa barne hartzen du:

- 👉 Formakuntzen Programa.
- 👉 Ahalbidetuz: Formakuntza zure entitatean.
- 👉 Gazte Eraldatzaileak.
- 👉 Astialdiko Udazkeneko Eskola.
- 👉 Gazte Formatzaileen Poltsa.



FORMAKUNTZA PLANA 2026

	ZER DA?	NOIZ?	NOLA?
FORMAKUNTZEN PROGRAMA	Talde formakuntza pilulak dira, elkarte guztiei irekita daude.	Urtean zehar, hilabetero.	Saio bakoitzean izena ematen. EGK-ko sare sozialetan publikatuko dira.
AHALBIDETUZ: FORMAKUNTZA ZURE ENTITATEAN	Martxan jartzen da elkarteek, haien beharrei jarraikiz, hala eskatzen dutenean.	Urtean zehar, hala eskatzen denean.	Elkarteen haien beharrei erreparatuz eskatzen dutenean piztu egiten da. partehartze@egk.eus korreoaren bitartez kontaktuan ipini interesa izatekotan
GAZTE ERALDATZAILEAK	Euskadiko gazte elkarteetako boluntarioentzat egindako ibilbide feministako prestakuntza da, ikuspegi intersektionalarekin, elkarreetan aldaketa feministak bultzatzeko tresnak eskaintzen dituen.	2026ko martxotik aurrera.	Martxoan deialdi masiboa egiten da, izen-emate bidez, eta dauden plazak gainditzekotan hautaketa-prozesua abiatzen da.
UDAZKENEKO ASTIALDIKO ESKOLA	Ikasteko, hausnartzeko eta astialdiko beste begirale batzuekin konektatzeko formakuntza espazio intentsiboa da.	2026ko udazkenean.	Izen-emateak 2026ko udazkenean.
GAZTE FORMATZAILEEN POLTSA	Formakuntza emateko prest dauden gazteak bilatzeko deialdia da.	Deialdia 2026ko urtarrila eta otsaila artean egingo da.	Deialdia urtarrilean irekitzen da eta baldintzei erreparatuz profilak hautatzen dira.

FORMAKUNTZEN PROGRAMA

Zer da?

Formakuntza pilula batzuk dira, eta **EGK osatzen duten elkarte guztiei** zuzenduta daude. Hilean behin eskainiko dira, **doan**.

Formakuntza pilulak **presentzialak** izango dira, hiru lurraldeetan, iraupen laburrekoak eta metodologia dinamiko eta parte-hartzaileekin.

Nork har dezake parte?

Hartzaileak, lehentasunez, EGK osatzen duten elkarteetako **gazteak** izango dira; hala ere, plazak betetzen ez badira, **saioak irekiak** izango dira gazte guztientzat.

ESKURAGARRI

INKLUSIBO

KOLEKTIBO

HAZKUNDE

DOAKOA

DINAMIKO

PRESENTZIAL

HILEROKO



Zeintzuk dira aurten jorratuko diren gaiak?

Formakuntzen Programarako gai hauek aukeratuko dira:

Batuz, TicketBai eta Gazte Elkartek	Helburuak: Batuz estrategiaren gako praktikoak ikastea, gazte-elkarteetan aplikatzeko.	URTARRILA	BILBO
Inklusioa lantzen Astialdian	Helburuak: Astialdiko espazioetan aniztasun funtzionala duten pertsonen errespetua, partaidetza eta aukera berdintasuna sustatzeko tresnak eta ezagutza praktikoak eskaintzea.	OTSAILA	DONOSTIA
Kulturarteko bizikidetzarako gakoak gure taldeetan	Helburuak: Kulturartekotasunari dagokionez, jarduera eta espazio inklusiboagoak sortzeko tresnak ikastea.	MARTXOA	BILBO
Emozioen kudeaketa haur eta nerabeekin	Helburuak: Taldearen barruan emozio biziak kudeatzeko estrategiak eskuratzea (amorrua, frustrazioa, beldurra, tristura...).	APIRILA	GASTEIZ
Lidergotza eta talde dinamikak	Helburuak: Lidergo partekaturako estrategiak eskuratzea, taldeak antolatu, koordinatu eta motibatzeko. Talde dinamikak ikastea eta praktikatzeko, kohesioa eta talde lana hobetzeko.	IRAILA	BILBO
Gatazken kudeaketa gazte elkarretean	Helburuak: Gatazkek eraginkortasunez identifikatzeko eta maneiatzeko teknikak ikastea. Komunikazio eta bitartekaritza trebetasunak garatzea	URRIA	BILBO
Finantziazio iturriak eta diruaren kudeaketa	Helburuak: Gure erakundeak finantzaketa bilatzean dituen indarguneak eta ahulguneak identifikatzea. Entitateetan dirua kudeatzeko dauden baliabideak ezagutzea.	AZAROA	BILBO

AHALBIDETUZ

Zer da?

Ahalbidetuz programa gazte elkarteei formakuntza ematean datza, hala eskatzen dutenean; beraz, **formakuntza espezifikoa eta indibidualizatua** da, formakuntza eskatzen duen elkartearen errealitatearen arabera. Programa hau EGK osatzen duten elkarteei zuzenduta dago soilik.

Nola funtzionatzen du?

Zure elkartean formakuntza jaso nahi izanez gero, partehartze@egk.eus helbide elektronikoaren bidez jarri beharko zarete harremanetan.

EGK-k Gazte Formatzaileen Poltsako gazte hezitzaileak konektatzea du eginkizun. Hau da, **formakuntza eskatzen duen elkartearekin harremanetan jarriko dugu formatzailea**.

Baina ez hori bakarrik... **EGK-k ekonomikoki erraztuko du formakuntza**. Hau da, EGK-k kreditu-lerro mugatu bat izango du, ematen dituen saioen ehuneko jakin bat ordaintzeko, kreditua amaitu arte. Kreditu-lerroa agortzen denean, EGK-k lotura ekonomikorik gabeko formakuntzak baino ez ditu emango.

Gainera, EGK-k elkarteen esku **utziko ditu formakuntza egiteko espazioak eta materialak**. Hala ere, saioak erakunde bakoitzeko lokaletan emateko aukera ere badago.



GAZTE ERALDATZAILEAK

Zer da?

Euskadiko elkarteetako **gazteak trebatzea eta ahalduntzea** helburu duen ikuspegi interseksionaleko ibilbide feministako formakuntza da. Helburua da **ezagutza, tresnak eta laguntza** eskaintzea, parte-hartzaileek euren elkarteetan benetako eta esanguratsuak diren aldaketak bultzatu ditzaten, politika feministak barneratuz eta ehun elkartekidea sendotuz.

Nola funtzionatzen du?

Ibilbidea **hiru bloketan** garatzen da, eta **teoria, praktika eta hausnarketa kolektiboa** uztartzen ditu:



Ikuspegi feministaren eta interseksionalaren marko teorikoa: Desberdintasunen (generoa, sexualitatea, klasea, jatorria, aniztasun funtzionala...) arteko elkarreragina eta horiek elkarteetako egunerokoan duten eragina ulertzeko funtsezko kontzeptuak lantzen dira.



Ibilbide feministak elkarteetan diseinatzea: beharrak identifikatu, aldaketak planifikatu eta ikuspegi feminista eguneroko funtzionamenduan txertatzeko estrategiak sortzen dituzte.



Amaierako esperientzia esanguratsua: Iksitakoa praktikan jarriko duen esperientzia edo ekintza eraldatzailea, elkarteetan benetako eragina sortzeko.

Prozesua parte-hartzailea, praktikoa eta aniztasunera egokitua da, bai elkartearen errealitateei dago-kienez, bai parte-hartzaileen ibilbideei dagokienez.

Nork parte har dezake?

Edozein arlotako Euskadiko gazte-elkarteetako boluntarioek parte har dezakete.



ASTIALDIKO UDAZKENEKO ESKOLA

Zer da?

Asteburuko **topaketa** bat da, astialdiko taldeei zuzendua. Aterpetxe batean egingo da, eta profesional espezializatuak gidatutako formakuntza saioak eta dinamika parte-hartzaileak uztartuko ditu. Helburua loturak sendotzea, esperientziak partekatzea eta astialdi hezigarriaren inguruko ezagutzak zabaltzea da. **Jarduera doakoa izango da parte-hartzaile guztientzat.**

Nola funtzionatzen du?

Jardunaldia aurkezpen- eta elkar ezagutza dinamikekin hasiko da, eta jarraian, profesional espezializatuak emandako lehen prestakuntza izango da. Bazkaldu ondoren, arratsaldean bigarren formakuntza saio bat egingo da. Taldeak aterpetxean egingo du lo, bizikidetza-giroa sustatuz. Hurrengo goizean, asteburuko azken formakuntza izango da eta, jarduerak bukatutakoan, bakoitza etxera itzuliko da bazkaltzera.

Nork parte har dezake?

Jarduera, batez ere, astialdi hezigarriko taldeetako **gazteei zuzenduta dago.**

Zein gai jorratuko dira?

Asteburuko formakuntzek astialdi hezigarriko taldeentzako interes bereziko gaiak landuko dituzte: **errealitate transak; haurtzaroan eta nerabezaroan izaera sexual desegokiko jokabide edo iruzkinen aurrean esku-hartze hezitzailea; eta euskararen erabilera astialdian sustatzea**, astialdi hezigarriko jardueretan modu natural eta motibatzailean txertatzeko baliabide praktikoak eskainiz.



GAZTE FORMATZAILEEN POLTSA

Zer da?

Formakuntza Programa eta Ahalbidetuz Programa **Gazte Formatzaileen Poltsari** esker garatuko dira.

Formatzaile gazteak formakuntza emateaz arduratuko dira. Hau da, formakuntza guztiak gazteek dinamizatuko dituzte, eta edukiak eta metodologiak aldeztu aurretik adostuko dira EGKrekin.

Nola funtzionatzen du?

Urte hasieran, Gazte Formatzaileen Poltsa sortzeko deialdia egingo da. Deialdia EGKren ohiko komunikazio bideetatik zabalduko da.

Poltsan sartzen diren pertsonen profila urtero aukeratzen diren gaien arabera da. Hala ere, betekizun komun batzuk egongo dira:

18 eta 30 urte bitartean izatea.

EAEko elkarteetan esperientzia izatea.

Formakuntzak euskaraz emateko gaitasuna izatea.

Honako dokumentu hauek aurkeztea:

- CV.
- Formakuntzaren planteamendu idatzia, aurkeztu beharreko gaiaren arabera (saioaren helburuak eta edukien laburpena).
- Elkarte bateko kide izatearen edo formakuntza emateko gaitasunaren ziurtagiria (ziurtagiriak, titulazioak...).

Fakturatu ahal izatea (elkarte baten bidez, autonomo gisa...).

Eskainiko diren formakuntzei dagokienez, honako hauek ezagutzen dituzten pertsonak bilatzen ditugu:

- Kudeaketa ekonomikoa, finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak.
- Inklusioa, aniztasun funtzionala, kulturen arteko gaitasunak, bizikidetzaren sustatzea.
- Lidergoa, taldeen kudeaketa, gatazken ebazpena.